

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

25/2026 Foru Dekretua, uztailaren 14koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Historiko eta Nabarmenen Katalogoaren araudia onestea

2025eko maiatzaren 20an onespina eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoa arautzen duen foru dekretuari. Dekretu hartan ezartzen zen zer baldintza eta betekizun bete behar diren mahasti batek nabarmentzat jotzeko behar diren ezaugarriak dauzkala onartzeko.

Beste alde batetik, ekainaren 3an onespina eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko mahasti nabarmenen kontserbazioa eta mantentzea sustatzeko laguntza lerro espezifiko arautzen duen foru dekretuari. Laguntza horiek ezaugarri jakin batzuk (besteak beste, antzinatasuna: 1978ra arte landatutako mahastiak) egiaztatu ondoren katalogoan sartu ziren mahastietarako ziren.

Halaber, 2018tik mahasti "zaharrak" kontserbatzeko eta mantentzeko laguntza arautzen eta ematen zen. Zahartzat jotzen ziren 1965era arte landatutako mahastiak, eta ez zegoen beste baldintzarik laguntza jasotzeko. Harrezkero laguntza hori ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretuak arautzen du. Gero, foru dekretu hori ekainaren 8ko 19/2020 Dekretuak, apirilaren 13ko 14/2021 Dekretuak eta apirilaren 1eko 11/2025 Dekretuak aldatu dute.

Laguntzaren helburua zen antzinatasunaren eraginez behar bezain lehiakorak ez diren eta irauteko arazoak eduki ditzaketen mahastiak kontserbatzea eta ez suntsitzea. Izan ere, hainbat faktore direla eta, hala nola mahasti zaharren ekoizkortasun txikia eta Europako programa edo funtsen bidez etorri diren berregituratzeko eta birmoldatzeko pizgarri ekonomikoak, batez ere, azken hogeitau urteetan, hainbat faktorek eragin dute hain emankorak ez diren eta lantzeko zailtasun handienak dituzten mahasti zaharrak kentzea. Izan ere, "mahasti zahar" deitutako gehienek, mahats gutxiago ekoizten dute mahatsondo bakoitzeko, eta, horrez gain, hutsarteak izaten dituzte eta oso landatze alor estuen bidez landatuta egon ohi dira, lursail txikietan eta topografia malkarrekoetan; beraz, lanak, tratamenduak eta bilketa izugarri zailtzen dira; edo, are gehiago, egungo makinak eta lanabesak erabiliz ezin dira landu.

Era berean, kontuan eduki behar da mahasti horietako mahatsa saltzearen truke jasotako prezioaren igoera, kalitate hobeko mahatsak izan arren, ez da nabarmen hobetu mahasti berriagoetako mahatsen prezioaren aldean. Horregatik, ekoizpen txikiko eta zaintza zaileko mahasti horiei eusteagatik sari ekonomikorik jaso ez dutenez, mahastizainek, askotan, mahasti zaharrak erauzi eta mahatsondo berriak landatu dituzte haien orde, azken batean, mahatsondo berrien maneia errazagoa delako eta etekin handiagoa dutelako.

Mahasti zaharrak, ordea, funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean, Errioxa jatorri-deituraren gainerakotik bereizten da ezaugarri horregatik. Gainera, mahasti horiek natura balio handiko nekazaritza sistemak dira; material genetikoak eta biodibertsitatekoak bizirik irauteko gordailu bikainak dira, landareak oso egokituta baitaude naturaren beraren eta klimaren baldintza kontrakoan aurrean. Era berean, oro har, landatartasuna, ekoizkortasun txikia eta dibertsitate handia ezaugarri dituzten mahasti horiek sekulako garrantzia dute kalitate bereziko ardoak egiteko. Beraz, beste arrazoi bat dago halako mahastien iraupenari eusteko eskualdean.

Azken batean, antzinako mahasti horiek, paisaia tradizionalaren eta Arabako Errioxako berezko nekazaritza sistema horien oinarritzko osagaiak, biodibertsitatea sortzen dutenak eta kalitate handieneko ardoak ekoizten dituztenak, ekologiaren, historiaren eta paisaiaren ikuspegitik duten balioagatik, natura eta kultura ondare gisa kontserbatzea merezi dute.

Aurrean aipatutako Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 30/2018 Foru Dekretua, ekainaren 9ko 19/2020 Foru Dekretuak, apirilaren 13ko 14/2021 Foru Dekretuak eta apirilaren 1eko 11/2025 Foru Dekretuak aldatutakoa, mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituen, akuilu bat izan da mahasti zaharren erauzketa hein batean gelditzeko, baina ez da nahikoa izan. Aitzitik, mahasti zaharrenen ordeztasunak maneia errazten eta etekin handiagoa ematen duten mahatsondo gazteak sartu dira pixkanaka-pixkanaka.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak aurrerapauso bat egin nahi izan du eta mahasti nabarmenen, mahasti aparten eta mahasti monumentalen kategoriak ezarri ditu haien kontserbazioaren sustapena hobetzeko eta ezagutarazteko. Hori dela eta, ezinbestekoa da xede bererako bi deialdi egoteak eta deialdi bakoitzak bere araudia edukitzeak bikoiztasunik eta nahasmenik ez eragitea.

Horregatik, babestu nahi diren mahastien kudeaketa eta kontzeptua erraztu nahian, bi araudiak batean biltzea proposatzen da, hain zuzen ere mahasti zaharren araudia mahasti nabarmenen araudian.

Kontuan eduki behar da:

Ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuak, Arabako Errioxako (Araba) ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko denak, esandako mahastien babes-araubidea deskribatu, mugatu eta onartzen du. Goian aipaturiko dekretu horren 1. artikuluan (Sustapen-neurriak) hauxe adierazten da: "Herri-erakundeek erabakitako sustapen-neurriak ezarriko dira Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturalaren monumentu-multzo osoan. Era berean, paisaiaren balioa indartzeko neurriak babestuko dira, eta paisaia hori eratu duten bizimoduei, ekoizpen-moduei eta tradizioei balioa emateko ekimenak lagunduko dira. Halaber, haren ondare-adierazpena egiteko eta hari balioa emateko ekimenak sustatu behar dira".

Kontuan hartu da ezen Batzordearen 2018/273 erregelamendu eskuordetuak gutxienezko edukia ezartzen duela baina ez duela mugatzen mahastiak landatzeko baimen sistema hautatu duten estatu kideetako mahastien erregistroetan jasotako informazioaren edukia (1338/2018 Errege Dekretuan jasotzen da); hortaz, haietan identifikazio markak sartzeko aukera dago, eta, horretarako, haiek zehazteko aukera emango duen arau garapena behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen Legearen 7b) artikuluan xedatzen denari jarraikiz, Arabako Lurralde Historikoan mahastizaintza eta enologiaren arloa garatzeko eta berraztertzeko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Halaber, Arabako Foru Aldundiko 2023-27 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuari jarraikiz (hori Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatzen du), mahastizaintza eta enologiaren arloko eskumena Nekazaritza Sailak dauka.

Kontuan hartuta zer ezartzen duen 1338/2018 Errege Dekretuak 28. artikuluan, egiaztatzen da aurreikusita dagoela mahastien erregistroak kudeatzen dituzten autonomia erkidegoek xehetasun eta zehaztapen gehiago sartu ahal izatea, nahi izanez gero, 2018/273 Erregelamenduaren arabera nahitaezkoak direnez gain; adibidez, mahastiak balio nabarmeneko ezaugarriren bat daukan, edo ezaugarri horiek zein diren.

Orain arte "zaharrak" esaten zitzaizkien mahastiak, hirugarren paragrafoan aipatzen diren dekretuetan arautuak, inolako eragozpenik gabe sar daitezke lehenengoan arautzen diren kontzeptuetan eta bertan ezartzen dena aplikatu ahal zaie eta horren arabera sailkatu daitezke edo, bestela, beste kategoria bat sortu daiteke haien zat, dauden kategoriak moldatuta.

Arabako Foru Aldundiak, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren bitartez, badauka eskarmentudun langilerik eta baliabide nahikorik informazio, prestakuntza, mahastien prospekzio, katalogoan sartzeko eskaeren izapidetze eta mahasti adierazgarriak izan daitezkeenak ebaluatzeko lanak egiteko. Horregatik, zerbitzu horrek eskumena edukiko du eskaerei, horien katalogazioari eta dekretu honen edukia garatzeko beharrezkoak diren zeregin guztiei buruzko ebazpena emateko.

Foru dekretu hau izapidetzean kontuan eduki dira administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen eta Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Horrela, adierazitako aurrekarietan ondo justifikatu da arloa berriz arautu beharra. Gainera, arau jarduketa proportzionatua izango da. Foru dekretua egiteko, kontuan eduki dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) oinarri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzunaldiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioaz denaz bezainbatean, proposatzen den arauketak, bere izaera dela eta, ez dakar administrazio karga osagarrikerik edo alferrikakorik herritar guztientzat, ez eta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan idatzi da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz.

Kontuan hartu da Arabako foru administrazioaren kontsulta batzordeak emandako irizpena, eta egin beharreko aldaketak egin dira proposatutako ondorioak asumitzeko.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Nabarmenen Katalogoaren araudia onestea, I. eta II. eranskinetan bildutako xedapenen arabera.

Bigarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzailea.- Araudi honekin bat ez datozen xedapenak indargabetzea, batez ere Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 2ko 16/2025 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

1.- Foru dekretu honen helburua da Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Historiko eta Nabarmenen Katalogoa sortzea da. Katalogo hori erregistro publiko administratiboa da, eta bertan jasoko dira, Arabako Lurralde Historikoan, balio aipagarriak dituztelako iraunarazteko interesa duten mahastiak edo mahatsondoak.

2.- Mahastiak edo mahatsondoak Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Historiko eta Nabarmenen Katalogoan jaso behar diren erabakitzeko faktore erabakigarriak izango dira antzinatasuna, kontserbazio egoera, biodibertsitatea, berezitasuna, lantzen diren barietateak eta ahalmen enologikoa, bai eta zenbait balio osagarri ere: edertasuna, historia, mahastian edo haren inguruan dauden elementu arkitektonikoak edo arkeologikoak, eta kokalekua.

2. artikulua. Kategoriak

Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Adierazgarriak kategoria hauetakoren batean sailkatuko dira:

MAHASTI ZAHARRA: 1978an edo lehenago landatutako mahastia, II. eranskinaren arabera mahasti nabarmentzat jotzeko behar den gutxieneko puntuaziora iristen ez dena, baldin eta 6. artikuluan laborantza iraunkorraz eta mantentzeaz ezartzen diren baldintza orokorrak betetzen baditu.

MAHASTI NABARMENA: mahasti zaharra, ardoa ematen duena, ondo kontserbatua eta osasun egoera onekoa, intereseko barietateak dauzkana edo/eta ekoizpen metodo tradizionalaz lantzen dena eta II. eranskinako gutxieneko puntuaziora iristen dena.

MAHASTI APARTA: aurreko ezaugarriak edukitzeaz gainera, II. eranskinako baremoaren arabera zientzia, enologia, kultura edo paisaia balio handia ematen duen mahastia.

MAHASTI MONUMENTALA: aurreko ezaugarriak edukitzeaz gainera, adinagatik, historiagatik, ardoen kalitateagatik edo zientzia, kultura, paisaia edo enologia interesegatik II. eranskinako baremoaren arabera balio handikotzat jotzen den mahastia.

3. artikulua. Katalogazioa

1. Mahastizaintza eta enologia arloko eskumena daukan sailak mahasti edo mahasti multzo bat katalogoan jasotzeko edo handik kentzeko prozedura abiarazi ahal du eta horretarako behar den informazio tekniko edo zientifikoa prestatuko du.

2. Katalogoan jasotzeko edo handik ateratzeko prozedura ofizioz hasiko da edo, bestela, jabeak, mahastizain kartillaren titularrak edo nekazaritza ustategiaren titularrak eskatuta. Eskaerarekin batera justifikazio tekniko edo zientifikoa aurkeztu ahal izango dute. Mahastizaintza eta enologia arloko eskumena daukan sailak eskaera aztertuko du eta prozedurari ekitea ala ez ekitea erabakiko du.

3. Prozedura hori urteko edozein unetan hasi ahal izango da; ez da egongo horretarako epe zehatzik.

4. Foru dekretu honen ondorioetarako, 1978an edo lehenago landatutako mahastiak izan daitezke mahasti nabarmenak.

5. Mahasti bat kategoria jakin batean sartzeko jarraian adierazten diren alderdiak hartuko dira kontuan, eta II. eranskinan ezarritakoaren arabera baloratuko dira:

- Adina. Oro har, mahastia zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta interesgarriagoa da. Berezi baliotsuak dira filoxeraren izurriteak XX. mendearen hasieran Errioxako eta Arabako mahastiak erruz hondatu aurretik txertatu gabe landatu ziren mahastiak, oraindik ere zutik dirautenak zona jakin batzuetan, kontserbatu ahal izan direlako zonen ezaugarri bereziei esker.

- Osasun, kontserbazio eta mantentze egoera: gaixotasunen edo izurriteen erasoan aurreko jasankortasuna edo minberatasuna, hutsarte kopurua, aireko belaunketa bidez birlandatutako eta ordeztutako mahatsondo ehunekoa, besteak beste, aintzat hartu beharreko alderdiak dira mahastiaren kontserbazioa ebaluatu eta haren kategorizazioa proposatzeko.

- Landaketa tartea. Jatorrizko landatze alorrei gaurdaino eutsi izanak, tarteko kaleak erauzi gabe, balioa ematen dio mahasti osoari. Kaleen zabalera estuak (1,50 metro ingurukoa) agerian uzten du eskuz edo lor abereak erabiliz lantzen zirela, Arabako lurraldean 1960-1965 arte ohikoa izan zenez.

- Oraingo barietateak. Dena delako inguruan ohikoak ez diren barietateak egotea aintzat hartzen da. Kasurako, gaur egun lantzen diren barietateen aurretikoak, hala nola Tenpranillo barietatearen aitzindaria den Benedicto mahatsa edo eskualdean desagertzeko zorian dauden zein bakanak diren beste batzuk.

- Mahastiko barietateen aukera. Bi barietate edo gehiago egotea kontuan hartzen da.

- Kokalekua. Mahastia gaur egun mahatsondoak ohiko laboreak ez diren eremu batean landatuta egotea, kota garaietan landatuta egotea, ibilgu natural batetik gertu, hiri-ingurune batean, upeltegi tradizional baten inguruetan, edo, oro har, berezizat edo garrantzitsutzat jotzen diren beste inguruabar batzuetan ere bai.

- Mahastiaren edo mahatsondoen ahalmen enologikoa, marka erregistratua duten zein ez duten ardo bikainak ekoizten dituztenak.

- Berezitasuna eta biodibertsitatea. Dagoen eremuan bakana izatea edo ohikoa ez den landare materiala egotea, zuhaitziak egotea, lotutako laboreak egotea (olibadia edo arbendolondoa, adibidez), edo mahastian edo inguruan biodibertsitate handia ahalbidetzen duen konfigurazio berezia egotea.

- Balioa handitzen laguntzen duen beste edozein ezaugarri, hala nola:

- Edertasuna. Mahasti osoaren edertasuna nahiz hura osatzen duten mahatsondoen edertasuna. Hona hemen balioa ematen duten alderdiak: mahatsondoak eite garaia izatea; anduiak tamaina handikoak izatea; mahatsondoak forma bihurriak izatea edo harkaitzetan landatuta egotea; aireko belaunketa ugari izatea, eta haien euskarri gisa hesolak, harriak edo beste elementu batzuk erabili izana; kaleak sestra kurbei jarraiki jarrita egotea, edo malda handiko lurretan edo terrazetan landaturik egotea.

- Historia. Mahastiar buruzko historia egiaztatua edo kondairak edo elementu artistiko gisa, literaturan edo beste edozein adierazpide kulturaletan izan dituen agerpenak.

- Antzinako elementu edo aztarna arkitektonikoak, eraikuntzakoak, arkeologikoak edo mahastian edo haren inguruetan gizakiak ibili edo jardun zutela adierazten duten beste aztarna batzuk, hala nola labar dolareak, txabolatxoak, etxolak, harrizko hormak, monasterioak, komentuak, baselizak, elizak, etxebizitzak, iturriak, biltegiak, upeltegiak, trikuharriak, iruinarriak, herrixkak, nekropoliak eta abar.

- Paisaia balioa. Multzoarekiko aldeagatik edo harmoniagatik, paisaia nabarmen edertzen eta aberasten duen ingurune bateko mahastia. Halaber, ingurune horretako toki estrategikoetatik duen ikusgarritasuna balioetsiko da.

4. artikulua. Prozedura

1- Mahastizaintza eta Enologiaren arloan eskumena duen sailak, mahasti jakin bat edo mahasti multzo bat katalogatzeko espediente hasi ondoren, justifikazio txosten tekniko egingo du, Arabako Foru Aldundiaren eskura dauden edo haren titularrek emandako datuekin. Txosten horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira:

a- II. eranskineko balorazioaren arabera mahasti historiko eta nabarmenen zein kategoriatan sartzea proposatzen den.

b- Hura osatzen duten esparruaren edo esparruen SIGPAC identifikazioa eta haren mugak, baldin eta ez badute hartzen SIGPAC esparru osoa, krokis egokia erabiliz, bai eta mahastien erregistroaren arabera inskribatutako azalera eta katalogatutako azalera ere.

c- Mahastiaren edo mahatsondoen deskribapena, katalogoan jasotzeko merezimenduak bereziki jorratuta.

d- Katalogoan sartzeko eskaera edo prozedura ofizioz hastea sustatzen duena, espedientearen barruko identifikaziorako.

e- Mahastia edo mahasti multzoa landatu zen data eta landatzea egiaztatzen duen informazioa, halakorik izanez gero.

f- Esparruaren zaintzan eragin kaltegarria izan dezaketen faktoreen azterketa.

g- Aurreko datuetan oinarritutako gomendioa, kontserbatu beharreko neurri espezifikoak buruzkoa.

2-Txostena eskura izango dute mahastia katalogoan sartzeko nahi duten pertsonak (jabeak, mahastizain kartillaren titullarrak eta nekazaritza ustiategiaren titullarrak). Horiek katalogazioan kontuan eduki beharreko alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Ebazpena eman aurretik entzunaldia emango zaie interesdunei (jabea, mahastizain kartillaren titullarra eta nekazaritza ustiategiaren titullarra). Horretarako, txosten tekniko baliabide elektroniko bidez helaraziko zaie eta izapidea hasi dela jakinaraziko zaie, eta hamar (10) egun baliaduneko epealdia emango zaie alegazioak aurkezteko. Epealdia jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

3- Mahasti edo mahasti multzo bat katalogotik kanpo uztea edo kategoriaz aldatzea haren titullarren ekimenez edo ofizioz egingo du mahastizaintza eta enologian eskumena daukan sailak, katalogoan sartzeko ekarri zuten arrazoiak aldatu edo desagertu direla egiaztatzen duen txosten tekniko egin ondoren. Mahasti bat katalogotik kanpo uzteko edo kategoriaz aldatzeko aurreko apartatuan deskribatutako prozedura bera erabiliko da.

5. artikulua. Ebazpena

Mahasti edo mahasti multzo bat Arabako Lurralde Historikoko Mahasti Historiko eta Nabarmenen Katalogoan sartzeko edo kentzeko, mahastizaintza eta enologiaren arloan eskumena daukan saileko diputatuaren foru agindua beharko da. Agindua ALHAOn argitaratuko da.

6. artikulua. Katalogazioaren betekizunak eta baldintzak

1. Katalogora mahasti bat sartu eta bertan jarraitzeko, mahasti hori katalogatzea eragin zuten balioak kontserbatu izanaren arabera izango da. Horrela ez bada, 4. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez deskatalogatu beharko da.

2. Era berean, katalogazioari eusteko, teknika tradizionalen arabera landu behar da; beste teknika batzuk edo jardunbide berriak ere onartu ahal izango dira, betiere behar bezala justifikatzen badira eta kontserbazioari kalte egiten ez badiote.

Era berean, mahastiaren ustiapenaren xedea ardoa egiteko mahatsa izan behar da, edo haren interes ekonomikotik edo bestelakotik eratorritako beste erabilera batzuk: bisita enoturistikoak, landare materialaren ugalketa, ikerketa edo beste batzuk.

3. Katalogoan dagoen edo egon daitekeen mahasti bat erauzteko asmoa jakinarazten denean, mahastizaintza ahalmenari buruzko araudian (1338/2018 Errege Dekretua edo haren ordezkua) hori egiteko eskatzen den baimena horren arabera izapidetuko da, eta katalogoan sartzeko ez du muga gehigarri ekarriko titullarren eskubideak baliatzeko orduan. Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak, informazioa emateko eta kontserbazioa sustatzeko helburu hutsarekin, eta titullarrak aurkakotasunik adierazten ez badu, mahasti horren berri eman ahal izango du borondatezko kontserbazio alternatibak sustatzeko eragile interesdunen artean.

Horren berri ematen denean beharrezko gutxieneko informazioa emango da (mahastiaren identifikazio teknika, udalerriko kokapena, azalera eta kategoria, behar izanez gero); ez da emango datu pertsonalik, legezko gaikuntza edo adostasuna eduki ezean. Zerbitzuak, hala badagokio, mahastiaren balioei eta borondatezko kontserbazio neurri posibleei buruzko txosten tekniko informatiboa egin ahal izango du, baina txosten horrek ezin izango du baldintzatu aplikatzekoa den araudi sektorialaren arabera dagokion ebazpena.

4. Mahastizaintza eta enologia arloan eskumena daukan sailak izapidetutako laguntza edo dirulaguntza eskaerek, bai eta mahastiak berregituratzekoek eta birmoldatzekoek ere, Katalogo mahastiren bat erauzteak badakarte, laguntza horien orientazio estrategikoetan ezarritakoa bete beharko dute, edo, bestela, Arabako Lurralde Historikoan aplikatu beharreko araudian (autonomikoa, estatukoa zein Europakoa) ezarritako orientazioak.

Irizpide bera aplikatuko zaie mahasti nabarmenik ez dagoen eskaerei, bai eta nabarmenak izateko prozesuan egonik ere, laguntzaren xede diren eragiketak garatzearen ondorioz nahitaez erauziko den mahastiren bat edo, azkenean, nahiz eta eragiketa horietarako beharrezkoa ez izan, erauzten den mahastiren bat dagoen eskaerei ere.

5. Mahastietako faltan ehunekoa indarreko araudian ezarritakoa baino handiagoa bada, katalogazioa eta erregistroko adina mantendu egingo dira, baldin eta faltak mahats landarez sartzen badira eta mahasti bereko landare materialarekin (begiak edo zurkaitzak) txertatzen bada. Hala egiten ez bada, berriz ebaluatu beharko da mahastia inskribatuta mantendu behar den, eta, beharrezkoa izanez gero, Katalogotik kenduko da edo kategoriaz jaitsiko da edo azalera txikituko da.

6. Katalogoari lotutako helburu teknikoetarako beharrezkoa denean, Arabako Foru Aldundiko langileek mahastietara sartu ahal izango dira, titularraren edo horren gaineko eskubide legitimoa duenaren alde aurreko adostasunarekin. Era berean, mahastizaintzan eta enologian eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailak mahastitik hartutako landare-materiala erabili ahal izango du, mahastiaren jabeak eta/edo, hala badagokio, titularrak baimena eman ondoren, mahastia iraunarazteko edo ugaritzeko.

7. Konpentsazio ekonomikoak edo bestelakoak erabaki ahalko dira Katalogoan dauden mahastien titularrentzat, hala nola mahastiak birgaitzeko edo mantentzeko lanetarako laguntzak (zurkaitzak, ureztatzea, hutsarteak edo landare estalkiak betetzea), dauden mahats barietateak karakterizatze eta aztertze laguntzak eta klonak hautatzeko laguntzak edo bestelako laguntza batzuk.

8. Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren bidez aztertuko dira mahasti horien lurrak edo hostoak, eraz mantendu edo lantzeko beharrezkoak badira, titularrek inolako kargurik izan gabe, behar bezala justifikatutako eskaera egin ondoren.

9. Mahasti historiko eta nabarmen baten katalogazioa publizitate edo merkataritza helburuetarako erabili ahalko izango da aplikatu beharreko araudiaren arabera.

10. Mahastizaintza eta enologiaren arloan eskumena daukan sailak mahasti zaharrenak behar bezala mantentzeko prestakuntza ekintzak sustatuko ditu.

11. Mahasti Historiko eta Nabarmenen Katalogoan dauden mahastiak perimetroan, bisitariek ondo ikusteko moduko leku batean, kartel bat jarrita seinaleztatu ahal izango dira. Bertan honako datu hauek ezarriko dira: Katalogoan noiz sartu den mahastia, nor den jabea, antzinatasuna, landare materiala, laborantza tartea, gida sistema, zer ardo ematen duten, eta abar. Seinaleztapen horretaz gain, mahastiaren jabeak beste errotulu, kartel, inskripzio, forma, logotipo edo irudi batzuk ere erabili ahal izango ditu, horretarako indarrean dagoen araudiari jarraikiz. Datu pertsonalak 9. artikuluan arautzen denaren arabera adierazi ahal izango dira.

Artikulu honen ondorioetarako, Katalogoan sar daitezke 1978an edo lehenago landatutako mahasti guztiak.

7. artikulua. Katalogoaren edukia

1. Katalogoan honako datu hauek jasoko dira unitate bat osatzen duen mahasti edo mahasti multzo bakoitzeko:

- Unitateko esparruaren edo esparruen SIGPAC identifikazioa eta Mahastien Erregistroko mahasti zenbakia.
- Azalera, mahastien erregistroko datuen arabera.
- Txosten teknikoaren datuak, katalogoan jasotzeko interesa zehazten duten ezaugarriak berariaz aipatuta.
- Mahasti historiko eta nabarmenen barruko kategoria, arrazoiak azalduta.
- Noiz sartu den katalogoan, noiz aldatu zaion kategoria eta/edo noiz atera den katalogotik, kasuan kasukoa.

2. Aldian-aldean, mahastiei edo mahasti multzoari buruzko datuak eguneratu egingo dira, eta egiten diren aldaketak katalogoan jasoko dira.

3. Katalogoa zaintzeaz, mantentzeaz eta eguneratzeaz mahastizaintza eta enologia arloan eskumena daukan saila arduratzen da. Horren inguruko datuak Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan sartuko dira.

8. artikulua. Babes neurri osagarriak

Dekretu honetan ageri diren mahasti historiko eta nabarmenak kontserbatzeko eta babes-teko neurri eta pizgarriak bateragarriak izango dira etorkizunean balia daitezkeen edo zeinahi antolakunde edo erakunde publikok nahiz pribatuk ezartzen dituen beste batzuekin.

9. artikulua. Katalogoaren publikotasuna eta datuen babesa

Katalogoa publikoa da. Hala ere, beraren edukiaren berri zabaltzean datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete behar da eta katalogoaren helburuetarako behar-beharrezkoak diren datuak baino ez dira emango.

ALHAOn eta baliabide batzuetan argitaratzen denean, minimizazioaren eta proportzionaltasunaren printzipioak aplikatu beharko dira, eta ez dira zabalduko beharrezkoak ez diren datu pertsonalak, legezko gaikuntza eduki ezean.

II. ERANSKINA

Hona hemen zer alderdi ebaluatzen diren mahasti bat Arabako Lurralde Historikoko mahasti historiko eta nabarmentzat jotzeko:

— Adina. Oro har, mahastia zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta interes handiagokoa da. Berezi baliotsuak dira filoxeraren izurriteak XX. mendearen hasieran Errioxako eta Arabako mahastiak erruz hondatu aurretik txertatu gabe landatu ziren mahastiak, oraindik ere zutik dirautenak zona jakin batzuetan, kontserbatu ahal izan direlako zonen ezaugarri bereziei esker.

- Adina $\leq$ 1957: 3 puntu.
- 1958 - 1968: 2 puntu.
- 1969 - 1978: 1 puntu.

— Osasun, kontserbazio eta mantentze egoera: gaixotasunen edo izurriteen erasoen aurreko jasankortasuna edo minberatasuna, hutsarte kopurua, aireko belaunketa bidez birlandatutako eta ordeztutako mahatsondo ehunekoa, besteak beste, aintzat hartu beharreko alderdiak dira mahastiaren kontserbazioa ebaluatu eta haren kategorizazioa proposatzeko. Alderdi hori oinarritzkoa denez, haren egoeraren arabera puntuazio negatiboak eman ahal izango dira:

Mahastizaintza lurzatiko falten azaleraren arabera, honela baloratuko da

- >ehuneko 35: -2 puntu.
- ehuneko 15 – 35: -1 puntu.
- ehuneko 5 – < ehuneko 15: 0 puntu (iradokizuna).
- < ehuneko 5: 1 puntu.

Puntuazio horiek mahastiaren egoera orokorraren arabera aldatu ahal izango dira, baina gehienez 2 puntu lortu ahal izango dira.

— Landaketa tartea:

- Kaleak > 1,80 m: 0 puntu.
- Erauzitako kaleak eta tartea ≤ 1,80 m: 1 puntu.
- Kaleak ≤ 1,80 m edo tarte irregularra: 2 puntu.

— Dauden barietateak. Dena delako zonan ohikoak ez diren 2 barietate edo gehiago egotea.

- Barietate bat: 0 puntu.
- 2 barietate: 1 puntu.
- 2 barietate baino gehiago: 2 puntu.

— Ahalmen enologikoa edo aitortutako ardoen jatorria:

Balorazioa: 0 edo 1, honen arabera:

- Mahastiak aintzatespen enologikoren bat dauka: 1 puntu.
- Mahastiak ez dauka aintzatespen enologikorik: 0 puntu.

— Berezitasuna. Bakana ote den kokalekuan; zer landare material duen; aireko belaunketarik ote dagoen; eitea; harrien artean, lurak maldan egonda, terrazetan edo sestra kurben arabera landatu ote den.

- Balorazioa: presentzia, frogatuta: 0–1 puntu.

— Biodibertsitatea: Bai olibondoa edo arbendolondoa bezalako beste zuhaitz labore batzuekin txandakatzeagatik, bai animalia, landare eta organismo bizien aberastasun berezia eragiten duen espazio batean egoteagatik. Mahastiaren inguruan zuhaizti edo zuhaitz bereziak egoteak ere balioa ematen diote.

- Balorazioa: Presentzia, frogatuta: 0–1 puntu.

— Elementu edo aztarna zaharrak: arkitektonikoak, eraikuntzakoak, arkeologikoak edo mahastian edo haren inguruetan gizakiak ibili edo jardun zutela adierazten duten beste aztarna batzuk, hala nola labar dolareak, txabolak, etxetxoak, mahastiak zaintzeko etxolak, harritzko hormak, trikuharriak, menhirrak, herrixkak, nekropoliak eta abar.

- Balorazioa: presentzia, frogatuta: 0–1 puntu.

— Historia, kultura eta paisaia balioa: multzoarekiko aldeagatik edo harmoniagatik, paisaia nabarmen edertzen eta aberasten duen ingurune bateko mahastia. Halaber, ingurune horretako toki estrategikoetatik ondo ikusi ahal izatea eta bisitetarako sarbide erraza izatea balioetsiko da, baita alderdi historiko garrantzitsuak ere.

- Balorazioa: presentzia, frogatuta: 0–1 puntu.

— Justifikatu beharreko beste ezaugarri batzuk, zeinei buruz irizten baita mahastien balioa indartzen dutela:

- Balorazioa: presentzia, frogatuta: 0–1 puntu.

Gehienez 15 puntu lor daitezke.

Mahastia nabarmen gisa sailkatzeko, gutxienez 5 puntu lortu beharko dira. 9 puntu lortuz gero, gainera, aparta izatearen kalifikazioa lortuko du, eta 12 puntu lortuz gero, monumentala izatearena ere bai. 5 puntura iritsi ezean, mahasti zahartzat joko da.

KATALOGOKO KATEGORIA	LORTUTAKO PUNTUAZIOA
Mahasti zaharrak	< 5
Mahasti nabarmenak	<=8 eta >=5
Mahasti apartak	< 12 eta > 8
Mahasti monumentalak	>=12

Mahasti baten azken sailkapena ez badator bat baremokoarekin, arrazoiak azalduta justifikatu beharko da.

Edalontzi sistema besokora aldatzeko prozesu baten ondorioz egituran aldakuntza handiak izan dituzten mahastiak mahasti zahar modura soilik sartu ahal izango dira katalogoan.